

JUARISTI HARROBIAREN (MAÑARIA) PLAN BEREZIA INGURUMEN ALDETIK EBALUATZEKO ERREFERENTZIA-AGIRIA

1.- AURREKARIAK

Euskal Herriko Ingurumenaren Babesari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren I A) eranskinarekin bat etorritz (planen eta programen ingurumen-ebaluazioaren prozedura arautu duen 211/2012 Dekretuak aldarazi zuen lege hori), zeinen bidez ingurumen-ebaluazioaren prozeduraren menpeko planen zerrenda ezarri den, eta era berean 211/2012 Dekretu horren 4. artikuluan ezarri denaren arabera, hiri- eta landa-lurraldearen antolamenduarekin lotuta dauden planak jarriko dira administrazio-prozedura honen menpe ingurumenean ondorio nabarmenak izan ditzaketenean. Juaristi harrobiaren Plan bereziaren kasuan, eraginen garrantzia agerikoa da, proiektuen ingurumen-eraginaren ebaluaziopean dagoen jarduera baterako euskarria delako eta Natura 2000 Sarearen ondoan dagoelako, bertan zuzenean edo zeharka eragin ahal duelarik.

Aurrekari gisa, 2006ko ekainean Mutxate harrobiaren Plan Berezian (Juaristi harrobiaren egungo plan bereziaren eremu berekoa) hasi zen tramitea aipatu behar da, Ingurumenaren gaineko Eraginaren Aurretiazko Txostena jaso duena. Ingurumenaren tramite horren ondorioz, izan ere, ingurumen-agiri ugari egin ziren, egun Juaristi harrobiaren Plan Berezia tramitatzeko baliagarri izan daitezkeenak. Erreferentzia-agiri hau egiteko, aurreko espedienteko informazioa ere erabili da.

DOCUMENTO DE REFERENCIA PARA LA EVALUACIÓN AMBIENTAL DEL PLAN ESPECIAL DE LA CANTERA JUARISTI (T.M. DE MAÑARIA)

1.- ANTECEDENTES

De conformidad con el Anexo I A) de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, modificado por el Decreto 211/2012, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental de planes y programas, que establece la lista de planes sometidos al procedimiento de evaluación ambiental estratégica, y de acuerdo asimismo, con el Artículo 4 del citado Decreto 211/2012, serán sometidos a este procedimiento administrativo los planes que tienen que ver con la ordenación del territorio urbano y rural y que puedan tener efectos significativos sobre el medio ambiente. La significación de los impactos en el caso del Plan Especial de la cantera Juaristi se evidencian en que es soporte para una actividad sometida a evaluación de impacto ambiental de proyectos y su ubicación colindante con la Red Natura 2000, a la que puede afectar directa o indirectamente.

Como antecedente también debe mencionarse el trámite iniciado en junio de 2006 del que se denominó Plan Especial de la cantera Mutxate (mismo ámbito del actual Plan especial de la cantera Juaristi), habiéndose llegado a emitir el Informe Preliminar de Impacto Ambiental. Como consecuencia del trámite ambiental se elaboró diversa documentación de tipo ambiental que puede resultar válida para el actual trámite del Plan Especial de la cantera Juaristi. Para elaborar el presente Documento de Referencia se ha usado también información de este expediente anterior.

2013ko abenduaren 3an, Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak ingurumenaren arloko iraunkortasunaren txostenaren hedapen- eta xehetasun-maila zehaztuko dituen erreferentzia-agiria egiteko beharrezkoak diren tramiteak hasi zituen. Horretarako, Mañariko Udalak “Juaristi harrobiaren plan berezia. Hasierako agiria” izeneko agiria igorri zuen, 2013ko irailekoa, FYM Italcementi Group etxeak egina.

Ingurumen iraunkortasunaren txostenaren (IIT) hedapen- eta xehetasun-maila zehazteko, erreferentzia-agiri hau idatzi da, planen eta programen ingurumen estrategia ebaluatzeko prozedura arautu duen 211/2012 Dekretuaren 10. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, betiere ukituriko administrazioei eta publiko interesatuari kontsulta egin eta identifikatu ondoren.

2.- EGINDAKO AURRETIAZKO KONTSULTEI EMANDAKO ERANTZUNEN INGURUMEN-AZTERKETA LABURRA

Eskaria jasotakoan, Ingurumen Zuzendaritzak eraginpeko herri administrazioen eta interesdunen identifikazio eta kontsultaren tramitea hasi du. Honako erakunde eta entitate hauei egin zaie kontsulta:

- Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiko Natura Ondarea Zaintzeko Zerbitzua.
- Nekazaritza Zuzendaritza Nagusia. Baso Zerbitzua. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Bide Azpiegituren Zuzendaritza Nagusia. Herri Lan Saila. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Udal Harremanetarako eta Hirigintzarako Zuzendaritza Nagusia. Lehendakaritza

Con fecha 3 de diciembre de 2.013 se da inicio en esta Dirección General de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Bizkaia a los trámites necesarios para la emisión del Documento de Referencia que determine la amplitud y el nivel de detalle del Informe de Sostenibilidad Ambiental (ISA). Para ello el Ayuntamiento de Mañaria ha remitido el documento titulado “Plan especial de la cantera Juaristi. Documento de Inicio”, de fecha septiembre de 2013 elaborado por FYM Italcementi Group.

Para determinar la amplitud, nivel de detalle del ISA se redacta el presente Documento de Referencia, según establece el Artículo 10 del Decreto 211/2012, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas, previa identificación y consulta a las administraciones públicas afectadas y público interesado.

2.- BREVE ANÁLISIS AMBIENTAL DE LAS RESPUESTAS A LAS CONSULTAS PREVIAS REALIZADAS

Recibida la solicitud, la Dirección de Medio Ambiente inicia el trámite de identificación y consultas a las administraciones afectadas y al público interesado. Han sido consultados los siguientes organismos y entidades:

- Servicio de Patrimonio Natural de la Dirección General de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Bizkaia
- Dirección General de Agricultura. Servicio de Montes. Diputación Foral de Bizkaia
- Dirección General de Infraestructuras Viarias. Departamento de Obras Públicas. Diputación Foral de Bizkaia.
- Dirección General de Relaciones Municipales y Urbanismo.



Saila. Bizkaiko Foru Aldundia.

- Kultura Zuzendaritza Nagusia. Kultura Saila. Bizkaiko Foru Aldundia.
- Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.
- Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.
- Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza.
- Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.
- Kultura Ondarearen Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.
- URA. Uraren Euskal Agentzia. Eusko Jaurlaritza.
- Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.
- Lurralde Plangintzako eta Hirigintzako Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.
- Osasun Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza.
- Kantauriko Ur Konfederazioa.
- IHOBE, Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa. Eusko Jaurlaritza.
- EEE, Energiaren Euskal Erakundea.
- Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoa.
- Bizkaiko Basogintza Elkartea.

Departamento de Presidencia.
Diputación Foral de Bizkaia.

- Dirección General de Cultura. Departamento de Cultura. Diputación Foral de Bizkaia
- Dirección de Desarrollo Rural y Litoral. Gobierno Vasco.
- Dirección de Administración Ambiental. Gobierno Vasco.
- Dirección de Energías, Minas y Administración Industrial.
- Dirección de Medio Natural y Planificación Ambiental. Gobierno Vasco.
- Dirección de Patrimonio Cultural. Gobierno Vasco.
- URA Agencia Vasca del Agua. Gobierno Vasco.
- Dirección de Atención de Emergencias. Gobierno Vasco.
- Dirección de Planificación Territorial y Urbanismo. Gobierno Vasco.
- Viceconsejería de Sanidad. Gobierno Vasco.
- Confederación Hidrográfica del Cantábrico.
- IHOBE, Sociedad Pública de Gestión Ambiental. Gobierno Vasco
- EVE, Ente Vasco de la Energía.
- Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia.
- Asociación de Forestalistas de Bizkaia.



- Bizkaiko Mendizale Federazioa.
- Bizkaiko Espeleologia Federazioa.
- ADR Durangaldea.
- Ekologistak Martxan.
- Lanius ornitologia elkarte.
- Izate
- EHNE.
- ENBA.

FYM Italcementi Group enpresak ingurumen-tramiteari ekiteko egin zuen dokumentua herri administrazio interesdunei eta publiko interesdunari kontsultak bideratzeko erabili da. Era berean, www.bizkaia.net helbidean argitaratu da helburu berarekin, hots, ukituriko herri administrazioak eta publiko interesatua identifikatzeko, ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautu duen 211/2012 Dekretuak dakarrenaren arabera.

Lehenago aipatutako 211/2012 Dekretuan erabakitako epean, honako erakunde hauen erantzunak jaso dira:

- IHOBE Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publikoak jakinarazi duenez, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioa berrikusi ondoren, Plan Bereziaren eremuan inbentariatutako partzelak 40 m²-ra mugatu dira, zehazki, erregaien biltegietara. Jakinarazi denez, ez da beharrezkoa lurzorua kalitatea aitortzeko prozedura hastea. Petrolio-produktu likidoak biltegitzeko tankeen eraispenerako araudia gogorarazten du.

- Bizkaiko Mendizale Federazioa.
- Federación vizcaína de espeleología.
- ADR Durangaldea.
- Ekologistak Martxan.
- Sociedad Ornitológica Lanius.
- Izate
- EHNE.
- ENBA.

El documento elaborado para el inicio del trámite ambiental redactado por la empresa FYM Italcementi Group, ha sido el utilizado para evacuar consultas a las Administraciones Públicas afectadas y al público interesado. Asimismo el documento ha sido publicado en www.bizkaia.net, con el mismo fin, de identificar a las administraciones públicas afectadas y al público interesado, de acuerdo con el contenido del Decreto 211/2012, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica.

Finalizado el plazo estipulado en el citado Decreto 211/2012, han sido recibidas las respuestas de las siguientes entidades:

- La Sociedad Pública de Gestión Ambiental IHOBE informa que tras la revisión del inventario de suelos que soportan o han soportado actividades o instalaciones potencialmente contaminantes del suelo, en el ámbito del Plan Especial se han reducido las parcelas inventariadas a una superficie de 40 m², que se corresponden con los depósitos de almacenamiento de combustible. Se informa que no es necesario el inicio del procedimiento de declaración de la calidad del suelo.



Instalazioak deskribatzen dituen fitxa erantsian harrobian dauden bi erregai-gordailuei buruzko informazioa ematen da. Lurpeko uren atalean baieztatu denez, ez dakite putzurik ote dagoen. Hala ere, Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoaren zundaketak, 30 metrotik beherako distantzian kokatuak, martxan daude.

- Kantauriko Ur Konfederazioak dioenez, Uraren Euskal Agentziarekiko administrazio-lankidetzaren arabera, organo horrek igorriko ditu bi administrazioen txostenak. Gogoratu beharra dago URA Uraren Euskal Agentziak harrobiaren aurreko Plan Bereziaren ingurumen-tramitearen txostena egin zuela, planaren eremuan Mañaria ibaiaren ertzen uholde-arriskua eta harrobiaren inguruko ur-puntuen presentzia aipatuz.
- Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioen Zuzendaritzaren ustez, sustatzaileak igorritako dokumentazioan 211/2012 Dekretuaren preskripzioak sartzen dira, ingurumen-organok honetako II Tren zehaztasun teknikoak eta zehaztasun-maila ezar ditzan, eta babes-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurri gehiago ez proposatzea ezartzen da. Era berean, dioenez harrobiak Ingurumena Zaintzeko Programa bat garatzen du hiru hilean behin, arauzko muga-balioen barruan dauden emaitzekin.
- Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoak bere jabetzako hornidura- eta saneamendu-

Recuerda la normativa que rige el desmantelamiento de tanques de almacenamiento de productos petrolíferos líquidos. En la ficha adjunta que describe las instalaciones se aporta información sobre los dos depósitos de combustible existentes en la cantera. En el apartado de aguas subterráneas se afirma que se desconoce la presencia de pozos. Sin embargo los sondeos del Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia, ubicados a una distancia de menos de 30 metros, sí están en uso.

- La Confederación Hidrográfica del Cantábrico informa que en virtud de la colaboración administrativa con la Agencia Vasca del Agua será este Organismo quien remita los informes de ambas administraciones. Cabe recordar que la Agencia Vasca del Agua URA informó en el anterior trámite ambiental del Plan especial de la cantera, haciendo referencia a la inundabilidad de las márgenes del río Mañaria en el ámbito del Plan, así como la presencia de puntos de agua en las inmediaciones de la cantera.
- La Dirección de Energía, Minas y Administración Industrial considera que la documentación remitida por el promotor incluye las prescripciones del Decreto 211/2012 para que este Órgano Ambiental puede definir las especificaciones técnicas y nivel de detalle del ISA y estima no proponer más medidas de protección, correctoras y compensatorias. Asimismo informa que la cantera lleva a cabo un Programa de Vigilancia Ambiental trimestral con resultados dentro de los valores límite reglamentarios.
- El Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia aporta información de las redes de



sareen Plan Bereziaren mugatik metro gutxitara dauden Harrobia I eta Harrobia II hartuneen kokapenaren gaineko informazioa ematen du. Plan Bereziaren ondoriozko jarduerak ez dietela instalazio horiei eragin behar gogorarazten du. Era berean, sareen etengabeko zortasun-distantziak gogorarazten ditu eta partzuergoaren biltegirako isuriek haren isuri-araudia bete behar dutela dio. Aurreko ingurumen-eraginaren baterako ebaluazio-espediterearen txostenean, Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoak adierazi zuenez isuriak zeuden Mañaria ibaiaren gainean, 10era arteko pH-rekin. Euria zegoenean esekitako solido-kopuruak muga baimenduak gainditzen zituela adierazi zen.

- Bizkaiko Foru Aldundiaren Bide Azpiegituren Zuzendaritzak gogorazi duenez, harrobiaren eremua BI-623 errepideko zortasun-gune akustikoaren eraginpean dago, eta, beraz, gune horren muga Plan Bereziari sartu beharko da. Gaineratu duenez, Bizkaiko Foru Aldundiaren Bizikleta Plan Zuzentzaileak harrobiaren eragipean dagoen errepidearen ertzean bidegorri bat eraikitzea aurreikusten du. Plan Bereziak etorkizunean bidegorria ezartzeko beharrezko espazioa gorde beharko du.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumenean eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak txostena egin du, biodibertsitatearen gaineko eraginaren ikuspegitik, eta ingurumenean ebaluazioan kontuan hartu beharrezko alderdi batzuk aurkezten ditu. Harrobiaren Plan Bereziari Urkiola Parke Naturalaren babesgune

abastecimiento y saneamiento de su propiedad así como la ubicación de las captaciones Harrobia I y Harrobia II, que se encuentran a escasos metros del límite del Plan Especial. Recuerda que dichas instalaciones no deben verse afectadas por las actuaciones derivadas del Plan Especial. Recuerda las distancias de servidumbre permanente de las redes y que los vertidos al colector del Consorcio deben cumplir el Reglamento de vertidos del mismo. En el informe del anterior expediente de evaluación conjunta de impacto ambiental el Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia informó que se daban vertidos sobre el cauce del río Mañaria con pH de hasta 10 y se señalaba que en momentos de lluvias la cantidad de sólidos en suspensión superaba los límites autorizados.

- La Dirección de Infraestructuras Viarias de la Diputación Foral de Bizkaia recuerda que el ámbito de la cantera está afectado por la zona de servidumbre acústica de la BI-623 y que por tanto se deberá incluir la delimitación de ésta en el Plan Especial. Informa además que el Plan Director Ciclable de la Diputación Foral de Bizkaia prevé la construcción de un bidegorri por la margen de la carretera afectada por la cantera. El Plan Especial deberá reservar el espacio necesario para la futura implantación del bidegorri.
- La Dirección de Medio Natural y Planificación Ambiental del Gobierno Vasco informa desde el punto de vista de la afección a la biodiversidad y aporta una serie de cuestiones a tener en cuenta en la evaluación ambiental. El Plan Especial de la cantera se ve afectado por la franja de la zona



periferikoaren eraginpean dago eta haren mugaren ondoan aurkitzen da. Txostenak dioenez, Plan Berezia ez doa Urkiolako BNAPen (Baliabide Naturalak Antolatzeke Planaren) zehaztapenen kontra. Kontuan hartuta harrobia Urkiola EITen (Erkidegoaren Intereseko Tokiaren) ondoan dagoela, Plan Bereziak leku osoan duen eragina aztertu behar da, Naturaren Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legeko 45.5 artikularen zehaztapenei jarraiki. Txostenak dioenez, printzipioz, harrobiaren jardura lehendik ere martxan dagoenez, ezin da espero tokiaren kontserbazio-helburuetan eragin nabarmenik antzematerik. Alderdi hori, zehazki, “ondorio esanguratsuen txosten” baten bidez baloratu behar da, Habitaten Zuzentzaruko 6. artikuluko 3 eta 4. ataletako xedapenei buruzko gida metodologikoko zehaztapenei jarraiki. Erkidegoaren intereseko 91E0* eta 9340 habitaten eta jarduerak errespetatu behar dituen landaretza interesgarrien (harizti azidofiloa) presentzia gogorarazten du. Plan Bereziaren eremuan ez da flora interesgarririk egiaztatu. Fauna interesgarriari dagokionez, Mañaria ibaia bisoi europarrarentzat interes bereziko tokia dela dio, espezie horren kudeaketa-planaren arabera. Gainera, harrobiaren hego-mendebaldean sai zurien kabi bat dagoela gogoratu du. Plan bereziak sai zurien gainean eraginik izango ez duela uste du, nahiz eta alderdi hori IITn baloratu behar den. Mañariko ibaiko habitatari buruz igorritako azterlanean proposatutako neurri zuzentzaileak sartzeko eskatu du (adibidez, harrobira sartzeko ibaiko zubian faunarentzako pasabide bat eraikitzea). Paisaiari dagokionez, alderdi hori harrobiaren ustiapen-proiektuan baloratu zela uste

periférica de protección del Parque Natural de Urkiola y es colindante con la delimitación del mismo. El informe considera que el Plan Especial no entra en contradicción con las determinaciones del PORN de Urkiola. Dado que la cantera es colindante con el LIC Urkiola debe analizarse la afección del Plan Especial a la integridad del lugar, siguiendo las determinaciones del Artículo 45.4 de la Ley 42/2007, de Patrimonio Natural y Biodiversidad. El informe argumenta que, en principio, dado que la actividad de la cantera ya existe, no es de esperar una afección apreciable sobre los objetivos de conservación del lugar. Esta cuestión debe valorarse mediante un “informe sobre la existencia de efectos significativos” elaborado siguiendo las determinaciones de la Guía metodológica sobre las disposiciones de los apartados 3 y 4 del Artículo 6 de la Directiva Hábitats. Recuerda la presencia de los hábitats de interés comunitario 91E0* y 9340 así como formaciones vegetales de interés (robleal acidófilo) que deben ser respetadas por la actividad. No se constata la presencia de flora de interés en el ámbito del Plan Especial. Respecto a la fauna de interés recuerda que el río Mañaria es un ámbito de Interés Especial para el visón europeo, según el plan de gestión de la especie. Informe además de la presencia de un nido de alimoche al suroeste de la cantera. Considera que el Plan Especial no tendrá afección sobre el alimoche, aunque este aspecto debe valorarse en el ISA. Solicita se incluya en el ISA la medida correctora propuesta en el estudio remitido sobre el hábitat del río Mañaria consistente en la construcción de un paso de fauna en el puente de cruce del río para acceder a la cantera.



du.

- Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailak dio ez dagoelako ondasun kultural arkitektoniko eta arkeologikorik Plan Bereziaren eremuaren barruan kalifikatu edo inbentariatutakorik. Ondare arkitektonikoaren gaineko eraginik ez dagoela egiaztatu da, Mañaria eta Izurtzako hainbat eraikin aipatzen diren arren. Ondare arkeologikoari dagokionez, Askondoko kobazuloa aipatzen du. Bertan, aztarnategi arkeologiko bat aurkitu da, Gravetiense garaiko pintura eta grabatu paleolitikoak dituen, horietako bat Bizkaiko multzo artistiko nagusienetakoa izanik. Beharrezkoa iruditzen zaio IITk azterketa bat sartzea harrobiaren jarduerak aztarnategi arkeologikoaren gainean duen eraginaren gainean, hainbat alderdi jorratuz: Askondoko zuloaren egoera eta bibrazioen urteko erregistroa Askondoko kobazuloaren barrutik egiten diren leherketatan, margotutako paneletan duten eragina egiaztatuz.
- Eusko Jaurlaritzako Euskal Kultura Ondarearen Zentroak Askondoko kobazuloaren horma-pinturen aztarnategiaren gaineko txostena egin du. Aztarnategi hori Euskal Kultura Ondarearen 7/1990 Legeko lehen xedapen gehigarriaren babespean dago. Harrobiko leherketek kobazuloan eta pintoretan duten eragin-maila baloratzeko azterlana eta mendigune harritsuaren egonkortasuna baloratzeko azterlan geologikoa egiteko eskatu du.

Respecto al paisaje considera que este aspecto ya fue valorado en el proyecto de explotación de la cantera.

- El Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia informa que no existen bienes culturales arquitectónicos ni arqueológicos calificados o inventariados ubicados dentro del ámbito del Plan Especial. Se confirma la inexistencia de impactos sobre el patrimonio arquitectónico aun cuando hace referencia a varios edificios de Mañaria e Izurtza. Respecto al patrimonio arqueológico hacer referencia a la cueva de Askondo, donde se ha hallado un yacimiento arqueológico con presencia de pinturas y grabados paleolíticos de edad Gravetiense consistiendo en uno de los principales conjuntos artísticos de Bizkaia. Considera necesario que el ISA incluya un análisis de la actividad de la cantera sobre el yacimiento arqueológico, estudiando varios aspectos como el estado de la cavidad de Askondo y el registro anual de vibraciones en el momento de voladuras desde el interior de la cueva de Askondo comprobando su afección sobre los paneles pintados.
- El centro de Patrimonio Cultural Vasco del Gobierno Vasco informa del yacimiento de pinturas parietales de la cueva de Askondo, que se encuentra protegida en virtud de la Disposición Adicional Primera de la ley 7/1990 de Patrimonio Cultural Vasco. Solicita que se haga un estudio para valorar el nivel de afección de las voladuras de la cantera sobre la cueva y las pinturas en particular, además de un estudio geológico que valore la estabilidad del macizo rocoso.



- Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak basoen eta baso-espezie autoktonoen gaineko araudia gogoratu du, eta plan bereziak erabilera publikoko basoei eragiten ez diela jakinarazi du. Naturaren babesari eta babestutako espazio naturalei eta katalogatutako espezieei buruzko beste araudi bat ere gogorarazi du.

Planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautu duen 211/2012 Dekretuaren I. eranskineko j) puntuan ezarritakoa betez, kontsultaturiko erakundeak hartu dira ukituriko herri administrazioetat.

Aurkeztu diren agiriak eta 211/2012 Dekretuan ezarritako kontsulta-tramitean jaso diren erantzunak aztertu eta Mañariko udalerrira bisita egin ondoren, erreferentzia-agiri hau eman da.

3.- INGURUMEN IRAUNKORTASUNARI BURUZKO TXOSTENAREN ZABALERA, XEHETASUN MAILA ETA ZEHAZTASUN GRADUA.

3.1.- Ingurumen-irizpide estrategikoak eta iraunkortasun-printzipioak eta -irizpideak

Plan Bereziak ingurumen-irizpide orokor hauei erantzun beharko die:

- Giroaren kalitatea, bizi-inguru osasungarria: harrobiaren inguruko ingurumen-zaratek eta hauts-isuriek ongizatean eragitea saihestea. Harrobiaren instalazioen isuri akustikoak erabileren barne-antolaketa eta mugan duen eragina kontuan hartzea.

- El Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia recuerda la normativa en materia de montes y especies forestales autóctonas e informa que el plan especial no afecta a Montes de Utilidad Pública. Recuerda también otra normativa sobre protección de la naturaleza y espacio naturales protegidos y de especies catalogadas.

En cumplimiento de lo establecido en el punto j) Anexo I del Decreto 211/2012 por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas, quedan identificados como administraciones públicas afectadas los organismos consultados.

Una vez analizada la documentación aportada, así como el contenido de las respuestas recibidas durante el trámite de consultas establecido en el Decreto 211/2012 y girada visita al municipio de Mañaria, se emite el presente Documento de Referencia.

3.- AMPLITUD, NIVEL DE DETALLE Y GRADO DE ESPECIFICACIÓN DEL INFORME DE SOSTENIBILIDAD AMBIENTAL.

3.1- Objetivos ambientales estratégicos, principios y criterios de sostenibilidad aplicables

El Plan Especial deberá responder a los siguientes objetivos de carácter ambiental general:

- Calidad del medio, entorno vital saludable: evitar la afeción al bienestar por el ruido ambiental y emisiones de polvo en el entorno de la cantera. Considerar la afeción de la emisión acústica de las instalaciones de la cantera en la delimitación y ordenación



- Plan Bereziaren eremuko eta inguruko ur-masen egoera ekologiko ona lortzea: harrobiaren behin betiko mugak eta erabileren barne-antolamenduak ezin dute Mañaria ibaiaren egoera ekologikoa hondatu. Erabileren antolamenduak bermatu egin behar du ez zaiola eragiten Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoko hartuneen bidez ustiatutako lurpeko uren kalitateari.
- Biodibertsitatea eta paisaia: harrobien barne-antolamenduak babestu egin behar ditu ustiatuko ez diren eta erkidegoaren intereseko habitatak nahiz landaretza interesgarriak dituzten eremuak. Inguruko espazio natural babestuen gaineko eragina ahalik eta gehien murriztu behar da.
- Uholde-arriskuaren prozesuekin, prozesu geoteknikoekin eta abarrekin lotutako ingurumen-arriskuak saihestea. Plan Berezia Mañaria ibaiaren ondoan dago eta urez gainez egin dezaketen gainazalak barne hartzen ditu.
- Harrobiaren jarduerak kultura-ondareari, eta bereziki Askondoko kobazuloari eragiten ez diela bermatzea.

Halaber, eta hirigintza-planaren kasuan zehazki, plan berezia egitea oinarri duten printzipioak erabili behar dira, behintzat, honako artikuluetan ezarritakoak:

- 1) Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 3. artikulua.
- 2) Lurzoruaren Legearen testu bategina onesten duen ekainaren 20ko Legegintzako 2/2008 Errege Dekretuaren 2. eta 10.

interna de los usos.

- Obtener el buen estado ecológico de las masas de agua del ámbito del Plan Especial y sus inmediaciones: la delimitación definitiva del ámbito de la cantera y la ordenación interna de usos no deben suponer una degradación del estado ecológico del río Mañaria. La ordenación de usos debe garantizar la no afección a la calidad de las aguas subterráneas, explotadas mediante las captaciones del Consorcio de Aguas Bilbao-Bizkaia.
- Biodiversidad y Paisaje: la ordenación interna de la cantera debe proteger los ámbitos que no se van a explotar y que albergan hábitats de interés comunitario así como formaciones vegetales de interés. Debe minimizarse la afección a los espacios naturales protegidos circundantes.
- Evitar riesgos ambientales, asociados a procesos de inundabilidad, geotécnicos, etc. El Plan Especial es colindante con el río Mañaria y abarca superficies inundables.
- Garantizar la no afección de la actividad de la cantera al patrimonio cultural, en especial a la cueva de Askondo.

Asimismo y de manera específica para el planeamiento urbanístico deben ser principios inspiradores en la elaboración del Plan Especial, al menos, los establecidos en los siguientes artículos:

- 1) Artículo 3 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.
- 2) Artículos 2 y 10 del Real Decreto Legislativo 2/2008, de 20 de junio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del

artikuluak.

3) Euskal Herriko ingurugiroa babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 23, 25, 28, 30, 69 eta 83. artikulua.

4) Euskal Autonomia Erkidegoko natura zaintzeari buruzko ekainaren 30eko 16/1994 Legearen 2. artikulua.

5) Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legeko 2. artikulua.

6) Urari buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legeko 3. artikulua.

7) Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legearen 6. eta 13. artikulua.

3.2- Erreferentzia-agiria egiteko kontuan izan diren arau iturriak

Arau-testu hauek izan dira aintzat erreferentzia-agiri hau egiteko:

- “3/1998 Legea, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteari buruzkoa”.
- “211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Plan eta programen ingurumen ebaluazio estrategikorako prozedura arautzen duena”.
- “92/43/EEE Zuzentaraua, 1992ko maiatzaren 21ekoa, habitat naturalak eta basa-fauna eta -landaredia kontserbatzeari buruzkoa”.
- “42/2007 Legea, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzkoa”.
- “Legegintzako 1/2001 Errege Dekretua,

Suelo.

3) Artículos 10, 23, 25, 28, 30, 69 y 83 de la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco.

4) Artículo 2 de la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco.

5) Artículo 2 de la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad.

6) Artículo 3 de la Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas.

7) Artículos 6 y 13 de la Ley 37/2003, de 17 de noviembre, del Ruido

3.2- Fuentes normativas y reglamentarias que se han tenido en cuenta para elaborar el Documento de Referencia

Para elaborar el presente documento de Referencia se han considerado los siguientes textos normativos:

- “Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco”.
- “Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas”.
- “Directiva 92/43/CEE, de 21 de mayo de 1.992, relativa a la conservación de los hábitats naturales y la fauna y flora silvestres”.
- “Ley 42/2007, del Patrimonio Natural y la Biodiversidad”.
- “Real Decreto Legislativo 1/2001 de 20



uztailaren 20koa, urari buruzko legearen testu bategina onesten duena”.

- “1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena”.
- “400/2013 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, Kantauri Ekialdeko Mugape Hidrografikoaren Espainiako zatiaren plan hidrológikoa onetsi duena”.
- “17/2003 Legea, azaroaren 17koa, Zaratarena”.
- “213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, EAEko kutsadura akustikoari buruzkoa”.
- “2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa”.
- “2/2008 Legegintzako Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Lurzoruari buruzko Legearen testu bategina onetsi duena”.
- “1/2005, otsailaren 4koa, lurzoru ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzekoa”.
- “112/2012 Errege Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntzako eta eraispenetako hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duena”.

Gainera, espediente honetan aplikatu beharreko beste arau-testu batzuk izan behar ditu aintzat Ingurumen Iraunkortasunari buruzko Txostenak.

3.3. Ingurumen-ebaluazioaren xedeko eremu geografikoa eta aukeren azterketa.

Plan Bereziaren ingurumenaren gaineko balorazioak eragina izan behar du planaren eremuko jardueren barne-antolamenduan eta inguruko eraginean.

de julio, por el que se aprueba el Texto refundido de la Ley de Aguas”

- “Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas”.
- “Real Decreto 400/2013, de 7 de junio, por el que se aprueba el Plan Hidrológico de la parte española de la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental”.
- “Ley 17/2003, de 17 de noviembre del Ruido”.
- “Decreto 213/2012, de 16 de octubre, de contaminación acústica en la CAPV”.
- “Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo”.
- “Real Decreto Legislativo 2/2008, de 20 de junio, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley del Suelo”.
- “Ley 1/2005, de 4 de febrero, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo”.
- “Decreto 112/2012, de 26 de junio, por el que se regula la producción y gestión de los residuos de construcción y demolición”.

Además el Informe de Sostenibilidad Ambiental deberá considerar otros textos normativos que sean aplicables a este expediente.

3.3. Ámbito geográfico objeto de evaluación ambiental y análisis de alternativas.

La valoración ambiental del Plan Especial debe incidir en la ordenación interna de las actividades en el ámbito del plan así como su afección al entorno.

Ingurumen-aldetik ebaluatuko den eremu geografikoan sartzen dira bai Plan Berezikoa, bai Planaren jardueren ondoriok jasan ditzakeen inguru hurbila. Planaren jardueraren ondorioak jasan ditzakeen ingurua ingurumen-ondorio esanguratsuak paira ditzakeen lurraldearen azalera izango da.

Igorritako agiriak bi aukera baloratzen ditu harrobiaren instalazioen barne-antolamendurako eta A aukera ingurumen-aldetik onena dela uste da. Ingurumen Iraunkortasunaren Txostenak bi aukerak aztertu behar ditu eta aukeratzeko duena justifikatu, txosten honen 3.4 puntuan jasotako aldagaiak eta interesgarriak izan daitezkeen bestelakoak kontuan hartuta.

Aztertutako aukeren eragina aztertzean, kontuan hartu beharko dira aurkeztutako agirian jaso ez diren ingurumen-aldagaiak, adibidez, harrobien sortutako ingurumen-zarata, Plan Berezian antolamendueremuaz harago ingurumen-ondorioak dituen. Ingurumen-zarataren aldagai honi dagokionez, sustatzaileak igorritako agiriak instalazioen garapen-gunea honela definitzen du: ingurumen-zarata igortzen duen eta materialak tratatzeko jardueren (birringailuak, elikagailuak, galbaheak, kalapetxeak...) kokagune den espazioa (6. gune gisa kartografiatua). Aztertutako bi aukerak leku desberdinetan kokatzen dute instalazioen garapen-gunea, eta, beraz, bi kokapenek inguruko etxebizitzetan izango duten eragina baloratu beharko da, ingurumen-zarata sentikorraren hartzaile gisa.

Plan berezia ez idazteko aukera (0 aukera) bideraezina da. Izan ere, Mañariko Arau Subsidiarioetan xedatutakoaren kontra doa, harrobien hirigintza-antolamenduari

El ámbito geográfico objeto de evaluación ambiental es el del Plan Especial y entorno cercano que puede verse afectado por las actuaciones del Plan. Como entorno afectable por la actividad del Plan se ha de entender la superficie del territorio sobre el que se pueden producir efectos ambientales relevantes.

El documento remitido valora dos alternativas para la ordenación interna de las instalaciones de la cantera y considera la Alternativa A como la ambientalmente mejor. El Informe de Sostenibilidad Ambiental debe analizar las dos alternativas y justificar la alternativa elegida incluyendo las variables recogidas en el punto 3.4. de este informe y otras que puedan resultar de interés.

En el análisis de impactos de las alternativas barajadas se deberán analizar variables ambientales no recogidas en el documento presentado como por ejemplo el ruido ambiental generado por la cantera que tiene efectos ambientales más allá del ámbito de ordenación del Plan Especial. Respeto a esta variable del ruido ambiental, el documento remitido por el promotor define la zona de desarrollo de instalaciones como un espacio donde se instalarán actividades de tratamiento de materiales como trituradoras, alimentadores, cribas, tolvas, etc., que constituyen un foco emisor de ruido ambiental, (cartografiada como zona 6). Las dos alternativas barajadas ubican en distinta posición la zona de desarrollo de instalaciones, por lo que se deberá valorar el impacto que pueden generar ambas ubicaciones sobre viviendas cercanas, como receptor de ruido ambiental más sensible.

La Alternativa 0 o de no redacción del Plan Especial es inviable dado que supone contradecir lo dispuesto en las NNSS de Mañaria respecto a la ordenación urbanística



dagokionez. Ingurumen-aldetik, gainera, erabilerak ez antolatzea eragingo luke, ingurumen-irizpidea barne, eta, beraz, ezingo lirateke dauden edo egon daitezkeen eragin batzuen gaineko zuzenketa-neurriak ezarri. Hala ere, IITk 0 aukera hori jaso beharko du, berau idatzi ezean eta plan berezian aplikatzekotan ingurumenaren gaineko eboluzio posiblea aztertuz.

Ingurumen-adierazle gisa, Bizkaiko udalerrietako ingurumen-adierazleen sistemak garaturikoak erabil daitezke; http://www.bizkaia21.net/atalak/Indicadores/BusTer_C.asp?tipo=MU&Id_Ter=907&Idiom_a=ca&idPagina=20 helbidean daude eskuragarri, eta plan berezia idazteko eta ebaluatzeko erabil daitezke. Hala baloratu beharko da ingurumen-eraginaren azterlanean. Igorritako agirian IHOBE Ingurumena Kudeatzeko Sozietate Publikoak egindako ingurumen-adierazleen zerrenda jasotzen da, baina ez da informaziorik aurkezten Mañaria udalerrian aplikatutako emaitzei buruz. Adierazle horiek berrikusi egin beharko dira, Juaristi harrobiaren plan berezia aplikatzean sortutako eraginei buruzko kalitate-informazioa eskaintzen dutenak ezarriz.

3.4.- Zehazki ezartzea eremu nabarmenenak, betiere kontserbazio, hauskortasun, ekologia eta paisaia kalitate, nagusitasun, dibertsitate, heldutasun, landarediaren egitura, baso bizitzarako garrantzi, berezitasun edo balio naturalengatik babes berezia izatearen aldetik, baita, hala denean, ebaluazioaren eremuko ingurumen arazoaren aldetik ere.

Proposatutako aukerak baloratzeko eta, halaber, Plan Berezia idazten ez bada (0 aukera) inguruneak seguruenik izango duen

de las canteras y ambientalmente supondría no ordenar usos incluyendo el criterio ambiental, lo cual impediría la implantación de medidas de corrección de algunos impactos existentes o potenciales. No obstante el ISA deberá incluir esa valoración de la Alternativa 0 mediante un análisis de la probable evolución del medio ambiente en caso de no redactarse y aplicarse el Plan Especial.

Como indicadores ambientales se pueden utilizar aquellos desarrollados por el Sistema de Indicadores de sostenibilidad de los municipios de Bizkaia, disponible en http://www.bizkaia21.net/atalak/Indicadores/BusTer_C.asp?tipo=MU&Id_Ter=907&Idiom_a=ca&idPagina=20, que puedan ser utilizables para la redacción del Plan Especial y su evaluación, aspecto a valorar en el estudio de impacto ambiental. En el documento remitido se incluye un listado de indicadores ambientales elaborado por la Sociedad Pública de Gestión Ambiental IHOBE, pero no se aporta información acerca de sus resultados aplicados al municipio de Mañaria. Se deberán revisar tales indicadores, adoptando los que ofrezcan información de calidad respecto a los impactos generados por la aplicación del Plan Especial de la cantera Juaristi.

3.4.- Determinación precisa de las áreas relevantes desde el punto de vista de la conservación, fragilidad, calidad ecológica y paisajística, representatividad, diversidad, madurez, estructura de la vegetación, importancia para la vida silvestre, singularidad o especial protección por sus valores naturalísticos, así como, en su caso, problemas ambientales en el ámbito de evaluación.

Para valorar las alternativas propuestas, así como para determinar la probable evolución del medio en el caso de que no se redactase

eboluzioa zehazteko, honako hauek hartu beharko dira kontuan:

3.4.1. Babesguneak

Juaristi harrobia Urkiolako Parke Naturalaren ondoan dago eta Parke Naturalaren babesgune periferikoarekin bat egiten du. Harrobiaren behin betiko mugak ez dio Parke Naturalari eragin behar. Babesgune periferikorako aurreikusitako erabilerak bateragarriak izan behar dira bertako erabilera-arauketarekin.

Parke Naturala Natura 2000 Sarean sartuta dagoenez, "Urkiola" EIT gisa, Plan Bereziak Natura 2000 Sareko espazio horretan duen eragina baloratu behar da. Plan Bereziak ez dauka zerikusirik tokiaren kudeaketarekin, eta, ondorioz, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Zuzendaritzak jakinarazi duenez, Plan Bereziak toki osoari egiten dion eragina aztertu behar da, Ondare Naturalari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legeko 45.4 artikuluko zehaztapenei jarraiki. Azterketa horrek planak EITren kontserbaziorako habitatetan eta espezieetan duen eragina baloratu beharko du, horien artean hegazti errupikolak gailentzen direlarik. Ez da egokitzat jotzen igorritako azterlanean agertzen denaren balorazioa, eragin positiboa ezartzen duena.

3.4.2.- Paisaia

Igorritako agirian pasaia-aldetik egokiena A aukera dela adierazten da, instalazioen garapen-gunea pasaian hobeto integratzen dela iritzita. Alderdi honen gaineko balorazio bat sartu beharko da, infografiak edo simulazio grafikoak erabiliz.

3.4.3. Azaleko urak.

Inguruko ur-masak egoera ekologiko onean egon daitezten eta gehiago degradatu ez

el Plan Especial (Alternativa 0) se deberán tener en cuenta las siguientes cuestiones:

3.4.1. Zonas protegidas

La cantera Juaristi se ubica colindante con el Parque Natural de Urkiola y se solapa con la zona periférica de protección del Parque Natural. La delimitación definitiva de la cantera no debe afectar al Parque Natural. Los usos previstos para la zona periférica de protección deben ser compatibles con la regulación de usos en ésta.

Dado que el Parque Natural está incluido en la Red Natura 2000, como LIC "Urkiola" debe valorarse la afección del Plan Especial sobre este espacio de la red Natura 2000. El Plan Especial no tiene que ver con la gestión del lugar y por tanto, según informa la Dirección de Medio Natural del Gobierno Vasco, debe analizarse la afección del Plan Especial a la integridad del lugar, siguiendo las determinaciones del Artículo 45.4 de la Ley 42/2007, de Patrimonio Natural y Biodiversidad. El análisis debe valorar la afección del plan sobre los hábitats y especies objeto de conservación del LIC, entre las que destacan las aves rupícolas. No se considera correcta la valoración como de impacto positivo el que se ofrece en la matriz del estudio remitido.

3.4.2.- Paisaje

En el documento remitido se valora como más adecuada paisajísticamente la Alternativa A, dado que la zona de desarrollo de instalaciones es más integrable en el paisaje. Se deberá incluir una valoración respecto a esta cuestión mediante el uso de infografías o simulaciones gráficas.

3.4.3. Hidrología superficial.

El objetivo ambiental a considerar es la consecución del buen estado ecológico y no

daitezen lortzea izango da ingurumen-helburua. Mañaria ibaia Plan Bereziaren eremuaren ondotik pasatzen da eta berau zeharkatzen du 100 metroko tartean. Igorritako agirian Mañaria ibaiko uren kalitatearen egoeraren balorazioa jasotzen da, adierazle biotikoen bidez, 2009-2012 urteetan eginga Anbiotek, S.L. enpresak. Informazio horri jarraiki, Mañaria ibaia kalitate ertain eta onaren arteko ubide-kalitatea dauka, harrobira sartzeko zubiaren ur goran eta ur beheran kokatutako bi kontrol-guneetan. Hala ere, azterlanaren ondorioak dio ur beheran kalitatearen beherazko joera antzeman dela azken lau urteetan. Hasierako agirian ere harrobiaren barruko azpi-arro batetik datorren isuri bat aipatzen da, egun ez duena dekantazio-tratamendurik. Ondorioz, uren kalitatean eragiten egon liteke.

Igorritako agirian “Mañaria ibaiaren ertzeko habitataren gaineko eraginen azterlana, Juaristi harrobitik pasatzean” izeneko jaso da, Taxus, Medio Ambiente enpresak eginga. Txostenak dioenez, ibaiertzeko basoaren kalitate-egoera, bisoi europarraren interes bereziko gunea osatzen duen zati batean erkideagoaren lehentasunezko intereseko habitata dena, oso txarra da. Hori kalkulatzeko, QBR indizea aplikatu da. Antzemandako eraginen jatorria ibaiertzeko egituren aldaketa da, ibaiertz-zati horretan landaretza egokia galarazten duten defentsa-egiturak baitaude.

Agirian neurri zuzentzaileen proposamen bat jasotzen da, honakoa hain zuzen ere: harrobiaren ondoko ibaiertz-zatia landareztatzea eta pasabide lehor bat

degradación adicional, de las masas de agua del entorno. El río Mañaria discurre colindante con el ámbito del Plan Especial y lo atraviesa en un tramo de unos 100 m. El documento remitido incluye una valoración del estado de calidad de las aguas del río Mañaria mediante el empleo de índices bióticos realizada en los años 2009-2012 por la empresa Anbiotek, S.L. Según esta información el río Mañaria presenta una calidad de cauce que fluctúa entre calidad media y buena en las dos estaciones de control situadas aguas arriba y aguas abajo del puente de acceso a la cantera. La conclusión del estudio no obstante afirma que aguas abajo se observa una tendencia negativa de la calidad en los últimos cuatro años. En el documento de inicio también se hace referencia a un vertido proveniente de una subcuenca en el interior de la cantera que en la actualidad no cuenta con tratamiento de decantación, lo cual puede estar produciendo afecciones a la calidad de las aguas.

En el documento remitido se aporta también un “Estudio de las afecciones sobre el hábitat de ribera del río Mañaria a su paso por la cantera Juaristi”, elaborado por la empresa Taxus, Medio Ambiente. El informe concluye que el estado de calidad del bosque de ribera, hábitat de interés comunitario prioritario en un tramo de cauce que constituye Área de Interés especial del visón europeo, es pésimo. El cálculo se ha hecho aplicando el índice QBR y los impactos detectados tienen su origen en la modificación de la estructura de las riberas del río por la presencia de estructuras de defensa que impiden la correcta revegetación del tramo de ribera.

En el documento se incluye una propuesta de medidas correctoras consistente en la revegetación del tramo de ribera adyacente a la cantera así como la construcción de una

eraikitzea harrobira sartzeko zubiaren azpiko ibaiertzean, bisoi europarraren mugikortasuna erraztu dezan.

Egindako bi azterketak, uraren kalitatearena (indize biotikoak erabiliz) eta ibaiertzen kalitatearena IItra sartu behar dira eta egoera ekologikoaren diagnostikoa lortzeko integratu. Ibaiertzean landaretza hobetzeko proposatutako neurri zuzentzaileak eta ubidearen konektibitatea Plan Berezian jaso beharko dira.

3.4.4. Lurpeko hidrologia

Igorritako agirian harrobiko eremuaren azterlan hidrologikoa jasotzen da. Plan Berezian akuiferoen kutsadurarekiko oso ahula den gune bati eragiten dio. Izan ere, harrobiak kareharri urgoniarrak ustiatzen ditu Aramotz-Anboto Unitate Hidrogeologikoko Anboko sektorearen NW norabideko zirkulazio-gune hidrikoan eta iturburuen bidez drainatzen da Mañaria ibaiaren eskuinaldean, harrobiko instalazioen inguruan. Akuiferoko maila piezometrikoei buruzko informazioa ere jaso da, Mañaria-2 zundaketan neurtua. Azterlanaren arabera, harrobiko ustiapenaren aurrealdeak ez du eraginik izan zirkulazio hidrikoa duen sistema karstikoko hodiedetan, ez eta maila freatikokoan ere. Zundaketako ur-kalitatearen datuak ere aurkeztu dira, eta, horietan, ez da uraren kutsadura-arazorik antzeman.

3.4.5. Uholde-arriskua

Aurkeztutako agirian ubidearen uholde-arriskuaren azterlan bat jasotzen da, Mañaria ibaiaren ondoko zatian. Aurkeztutako kartografiatik ondorioztatu daitekeenez, harrobiko instalazioetan uholde-arriskua dago soilik bertara foru-errepidetik sartzeko gunean. Ezkerraldean dagoen material-bilketak urez gainezka egiten du T=10ean,

paso seco en la ribera bajo el puente de acceso a la cantera que favorezca la movilidad del visón europeo.

Ambos análisis efectuados, el de calidad del agua usando índices bióticos y el de calidad de las riberas, se deben incorporar al ISA e integrarse para obtener un diagnóstico de estado ecológico. Las medidas correctoras propuestas para mejorar la cobertura de vegetación en la ribera y la conectividad del cauce deberán incorporarse al Plan Especial.

3.4.4. Hidrología subterránea

